

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

1589

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 2koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingoko Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agentearen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zuen 2025eko martxoaren 6ko Ebazpena aldatzen duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikulua xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bidez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren egiturari buruzko martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuak eta aplikatu beharreko indarreko gainerako legeek ematen dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Horrelako hutsak atzeman dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2025eko martxoaren 6ko Ebazpenaren euskarazko eta gaztelaniazko testuan (2025eko martxoaren 20ko EHAA, 55 zk.). Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingoko Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agentearen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen. Beraz, dagokion zuzenketa egiten da ondoren:

A) 2025/1271 (1/41) orrialdean, udaletatik datozen gomendioen zerrendan, Donostiako, Eibarreko eta Legazpiko udalak sartzea.

B) Bigarren Oinarriko hirugarren atalean, j), 2025/1271 (3/41) orrialdean – Portugalete sartzea.

C) Bigarren Oinarriko, j), laugarren atala 2025/1271 (4/41) orrialdean aldatzea:

Honela dioenean:

- 4.– A motako baimena, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean indarrean dagoena:
– Azkoitia.

Hau esan behar du:

- 4.– A1 motako baimena indarrean izatea karrerako funtzionario izendatu aurretik: – Azkoitia.

D) Bigarren Oinarriko, j), seigarren atala 2025/1271 (4/41) orrialdean aldatzea:

Honela dioenean:

6.– C1 motako baimena, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean indarrean dagoena: – Azkoitia.

Hau esan behar du:

6.– C1 motako baimena indarrean izatea karrerako funtzionario izendatu aurretik: – Azkoitia.

E) I. eranskinean – Deitutako plazak, honako hauek sartzea:

Udaltzain kidegoak		
Udala	Plaza kopurua	Ezaugarriak
Donostia / San Sebastián	2	Administrazioko 2. hizkuntza eskakizuna (euskara), derrigortasun data igarota. Plazak administrazio bereziko taldekoak dira, zerbitzu berezien azpitaldekoak, udaltzaingoaren motakoak, c lanbide-sailkapeneko taldekoak, c1 azpitaldekoak, destino osagarria: 18, berariazko osagarria: 29.417,08 euro urtean.
Eibar	3	Administrazioko 2. hizkuntza-eskakizuna (euskara), derrigortasun data igarota. Plazak administrazio bereziko taldekoak dira, zerbitzu berezien azpitaldekoak, udaltzainen motakoak, c lanbide-sailkapeneko taldekoak, c1 azpitaldekoak, destino osagarria: 22, berariazko osagarria: 14.011,68 euro urtean.
Legazpi	2	Administrazioko 2. hizkuntza eskakizuna (euskara), derrigortasun data igarota. Plazak administrazio bereziko taldekoak dira, zerbitzu berezien azpitaldekoak, udaltzaingoaren motakoak, c lanbide-sailkapeneko taldekoak, c1 azpitaldekoak, destino-osagarria: 19, berariazko osagarria: 15.924,58 euro urtean.

F) I. eranskinean – Deitutako plazak, honakoa dioenean:

Bilbao	67	54 plaza administrazioko 2. hizkuntza eskakizunarekin (euskara), derrigortasun data igarota dutena eta 13 2. hizkuntza eskakizunarekin, derrigortasun data igaro gabe. Plazak administrazio bereziko taldekoak dira, zerbitzu berezien azpitaldekoak, udaltzaingoaren motakoak, c lanbide-sailkapeneko taldekoak, c1 azpitaldekoak, destino osagarria: 17, berariazko osagarria: 31.081,08 euro urtean.
--------	----	---

Honakoa esan behar du:

Bilbao	67	27 plaza administrazioko 2. hizkuntza eskakizunarekin (euskara), derrigortasun data igarota dutena eta 40 2. hizkuntza eskakizunarekin, derrigortasun data igaro gabe. Plazak administrazio bereziko taldekoak dira, zerbitzu berezien azpitaldekoak, udaltzaingoaren motakoak, c lanbide-sailkapeneko taldekoak, c1 azpitaldekoak, destino osagarria: 17, berariazko osagarria: 31.081,08 euro urtean.
--------	----	---

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau argitaratzen den egunera arte aurkeztutako eskabideak baliozkoak izango dira, eta interesdunek aldatu ahal izango dituzte, merezimenduen atalean emandako zerbitzuak txertatuz, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkara dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken kasu horretan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan jasotako administrazioarekiko auzien epaitegien lurralde-eskumeneko arauak bete beharko dira.

Arkauti, 2025eko apirilaren 2a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MIREN DOBARAN URRUTIA.